



PRENSA OHARRA

Posta bidez bozkatu nahi duten hautesleek Estatuko Correoseko bulego guztietan eskatu ahal dute

OTSAILAREN 19A, POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO AZKEN EGUNA

EAEko bizilagunek otsailaren 19ra arte eskatu ahal izango dute posta bidezko botoa martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako 2009 hauteskundeetan parte hartzeko. Bozketa egunean botoa ematea dagokien herrian ez daudela aurreikusten duten pertsonak eman dezakete posta bidezko botoa. Halaber, gaixorik daudela edota urritasun fisikoren bat dutela eta, bozketa egunean zuzenean bozkatu ezin dutenek ere eman dezakete posta bidezko botoa. Posta bidez bozkatu nahi duten hautesleek Espainiako Correoseko bulego guztietan eskatu ahal izango dute. Otsailaren 25a da azken eguna bakoitzari dagokion hauteskunde mahaira aukeratutako boto txartela doako posta ziurtatuz bidaltzeko..

Martxoaren 1eko euskal hauteskundeetan posta bidezko botoa eman nahi dutenek eta, oraindik kudeatu ez dutenek, hilaren 19ra arte eskatu ahal izango dute. Posta bidezko botoa emateko, lehenengo pausoa Estatuko Correoseko bulego guztietan aurki daitezkeen eskaera inprimaki bat betetzea da. Epea (hilaren 19an amaitzen da) urtarrilaren 6an hasi zen, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritzak editatutako hauteskunde egutegian jasotzen den legez.

Posta bidezko botoa eman dezakete martxoaren 1ean botoa ematea dagokien herrian ez daudela aurreikusten duten EAEko pertsonak. Halaber, gaixorik daudela edota urritasun fisikoren bat dutela eta, bozketa egunean hauteslekura joan ezin direnek ere eman dezakete posta bidezko botoa.

Posta bidez bozkatu nahi duten hautesleek Estatuan dauden Correoseko bulego guztietan eskatu ahal izango dute, beraiek zuzenean, eta bertan bete beharko dute eskaera inprimakia.

Gaixo edo ezinduen kasuetan, egoera horiek "mediku ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatu beharko dira" eta notario baten edo kontsularen aurrean baimendutako pertsona batek egin dezake eskaera hauteslearen ordean.

Behin beteta eta sinatuta, eskaera Estatuko Correoseko edozein bulegotan aurkeztu behar da. Posta zerbitzuko funtzionarioek, eskaera jaso aurretik, NANA eskatuko diote hautesleari, eta sinadurak berberak direla egiaztatuko dute.

Ondoren, eta otsailaren 22ra arte (egun hori barne), Hauteskunde Erroldako Bulegoko Ordezkaritzak honako dokumentazioa bidaliko du hautesleak eskaeran adierazitako helbidera:

- Hauteskunde erroldako inskripzioaren ziurtagiria.
- Botoa eman beharreko Mahaiburutzari zuzendutako gutun-azala.
- "Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak 2009 Elecciones al Parlamento Vasco" idazpurua duen hauteskunde gutun-azala, boto txartela sartzeko.
- Aldarrikatutako hautagai zerrenda bakoitzaren boto txartela.
- Argibide orri bat

Behin dokumentazioa jasota, hautesleak bozkatutako duen hautagai zerrendaren boto txartela "Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak 2009 Elecciones al Parlamento Vasco" idazpurua duen hauteskunde gutun-azalean sartu eta, ondoren, itxi behar du.

Azkenik, Mahaiburutzarentzako gutun-azalean, hau sartu beharko du: Hauteskunde erroldako inskripzioaren ziurtagiria eta "Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak Elecciones al Parlamento Vasco" idazpurua duen hauteskunde gutun-azala. Gutun-azal horrek ez du frankeorik behar, baina doako posta ziurtatuz eta urgentez bidali behar da. Gutun-azal hori Correoseko edozein bulegotan uzteko azken eguna otsailaren 25a da.

Hauteskunde Erroldako Bulegoak eskainitako datuen arabera, 2005eko hauteskunde autonomikoetan 49.864 hauteslek eskatu zuten posta bidez bozkatzea; 6.339 hauteslek eskatu zuten Araban, 29.252k Bizkaian eta 14.273k Gipuzkoan.

Atzerrian diren hautesleen posta bidezko botoa

Bestalde, honako pertsona hauek bozkatu ahal izango dute atzeritik: EAEko edozein udalerritan jaiotako herritarrek eta haien ondorengoek, baldin eta, atzerrian etengabe bizi diren arren, atzerrian diren hautesleen hauteskunde erroldan izena emanda badaude. Hautesle hauek Hauteskunde Erroldako Bulegoko Ordezkaritzak (hautesle bakoitzari dagokiona) otsailaren 13tik aurrera (Demokrazia 3 Milioi eta Askatasunaren zerrenden aurka-egitea dela eta) bidalitako dokumentazioren bidez emango dute botoa.

Hauteskunde hauetan 43.712 lagun daude egoera horretan; 3.476 Araban, 23.371 Bizkaian eta 16.865 Gipuzkoan.